

2.8.- ITXAROPEN HIRUKOTEA

Marian eta Mari Sol Garmendia ahizpak eta Jesusa Makibar izan ziren taldeko lehen partaideak eta, ondoren, Maria Jesus Zabalo gehitu zitzairen, gitarra akustikoarekin.

Hirukote honi dagokionez, erreperitorioan sartu zituzten konposizio berriak nabarmenduko nituzke. Pascual Rarturen Aita nasiotarrak konposatu zituen

taldearentzat, Jose Agustin Orbegozo pasiotarraren hitzekin. Beraz, esan daiteke Kanta Berri mugimendua zabaltzen lagundu zutela.

Hirukotearen lehen ekitaldiaren erreferentziatzat 1967. urte amaieran Artzain Onaren Ikastetxeko areto nagusian eskaini zuten emanaldia jaso dut. Jendaurreko estreinaldia 1968ko ekainean egin zuten, Telleriarteko San Joan jaietan. Herrian lehen emanaldia, 1968ko irailean eman zuten, Agorreko Santikutzetan.

1968an eta ondorengo urteetan, taldeak emanaldi ugari eskaini zituen, batez ere Bizkaian. Nabarmenezkoak dira Loiolako Herri Irratian egin zuten grabaketa eta hainbat irratitan, Donostia Irratian eta Bilboko beste bi irratitan, adibidez, izan zuten parte hartzea.

1969an lehiaketa eta jaialdi garrantzitsuetan parte hartu zuten. Zehazki, Eibarren izan zen Euskal Kantaren IV. Jaialdian; bertan, "Nigarrez" eta "Mundu berri bat" lanak interpretatuz finalerako sailkatu zen. Bilbon izan zen Musika Gaztearen II. Jaialdian ere parte hartu zuten, eta finalera iritsi ondoren hirugarren postua lortu zuten. Urte berean, Getxoko "Festival del Abra" izenekoan ere parte hartu zuten. Horrez gain, Arrasateko "Noche de Promesas" lehiaketan parte hartu zuten.

1969an izandako ekitaldietatik oihartzun gehiena izan zuena Donostian, Victoria Eugenia eskaini zuena izan zen. Donostiako hiriburuan profesional maila lortzeko azterketara aurkeztu zen eta, 1969ko uztailaren 24an, Perlán izan zen froga gainditu zuen.

Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzetxeak Hirukotea kontratatu zuen, 1969ko irailaren 12, 13 eta 14ko Euskal Jaietan parte hartzeko.

Garai haietan goren mailan zeuden kantautoreekin eta taldeekin batera aritu zen hainbat jaialditan. Era berean, herriko musika-taldeek urtero antolatzen zituzten jaialdietan ere parte hartu zuten.

1971n, Azpeitiko Unai hirukotearekin batera, Loiolako Herri Irratiak eta Arrasateko Danakak antolatutako "Kanta Berri" lehiaketan lehiatu ziren bakarlariekin batera aritzeko kontratatu zuten. Kanporaketa saioak Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Iruñan izan ziren; finala berriz, Arrasaten izan zen.

1971ko abenduaren 7an Eslesa aretoan izan zen jaialdian, Itxaropen Hirukoteak taldea desagitear zela adierazi zuen. Jaialdi horretan bere estreinaldiko lau abestiak interpretatu zituen. Ekitaldi horretan Musika Bandak eta Txistulari Bandak, Alaitasuna Errondailak, Talde Koralak, Txoko-Zar otxoteak eta soinu-jotzaileek ere parte hartu zuten.

Jendaurrean gehiago kantatuko ez zutela adierazi zuten arren, Alaitasuna Errondailarekin batera Santa Kruz Egoitzan emanaldia eskaini zuten egoitzako adinekoen aurrean, 1972ko urtarrilaren 6an.

Dena den, hori ere ez zen izan azken emanaldia. Handik urte askotara berriro elkartu ziren Kilometroak 94ko arduradunek kiroldegian antolatutako Kilometroak Kamp jaialdian parte hartzeko, 1994ko irailaren 16an.

XX

// MUSIKA ETA MUSIKARI LEGAZPIARRAK
XX.MENDEAN

// LA MÚSICA Y SUS PROTAGONISTAS
LEGAZPIARRAS EN EL SIGLO XX



José Mari Urcelay Urcelay